

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

HABEko liburutegia, altxor preziatua

Asko kostata, eta hamalau urteren buruan, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak, HABEk, punta-puntako liburutegia osatzea lortu du, bereziki hizkuntzen irakaskuntzak arduratuta dabiltzanei begira. 500 metro koadro ditu etxe berrian, HABEk Donostian duen egoitza berriaren 3. solairuan, hain zuzen.

HABEk 10 bat milioi pezeta eskaintzen dizkio urtero liburutegiari. Gastu nagusiak hauek dira: liburuak erostea (aurrekontuaren erdia), aldizkarien harpidetzak egitea (laurdena) eta enkoadernatzea (hamarrena). Lan guztiak informatizaturik dauden arren, aurten hasita informazio guztia Abys

sistema informatikora pasatuko da, Euskaltzaindiak darabilena eta Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailak udal liburutegietarako aukeratu duen sistemara.

Jakintza eremuak

Zerbaitek uste du euskarari buruzko liburutegia dela soilik, baina liburutegi honetan arlo askotako dokumentazioa biltzen da: hizkuntzaren didaktika, soziolinguistika, euskara, hezkuntza, psikologia, hizkuntzalaritza eta psikolinguistika.

Zerbitzuak

Hiru profesionalak daramate HABEko liburutegiaren lan guztia. Hamabi laguntzako irakurgela du, fotokopia

Bada Zer aukeratu HABEko liburutegian

■ Liburuak: 18.000

- 4.000 glotodidaktikari buruzkoak.
- 3.200 soziolinguistikari buruzkoak.
- 1.000 euskarari buruzkoak.
- 3.500 euskaraz.
- 3.500 hezkuntza/psikologia.
- 1.200 hizkuntzalaritza/psikolinguistika.

■ Aldizkariak: 550

Horietatik 300 bizirik.

■ Kaseteak: 1.000

■ Bideoak: 400

■ Mikrofitxak.

■ Tesiak.

Iturria: HABE

zerbitzua, mikrofitxen irakurgailua, eta ordenadoreak kontsulta informatikoak egin ahal izateko. Aldiko hiru liburu eraman daitezke maileguan, hiru astetarako. Liburuak ateratzeko erabiltzaile karneta behar da. Dagoeneko 200 lagunek dute HABE liburutegiko erabiltzaile karneta.

Munduko edozein hizkuntza -madagaskarrera edo serbio-kroaziera kasu- ikasi nahi duenak ere material oso baliagarriak aurkituko ditu liburutegi honetan.

Edonork dei dezake telefonoz kontsultak egiteko, beti ere lan orduetan.

Arduraduna: Imanol Irizar.
Tel.: (943) 41 26 04



Munduko edozein hizkuntza ikasteko material ugari dago HABEko liburutegian.

Lau langile gormutuk euskara ikasten dihardute Antzuolako Elay enpresan

Joxe, Jon, eta Julián Balentziaga eta Juan Ignacio López, bergararrak laurak, ez dira euskara ikasten ari diren ohiko ikasle helduak. Gormutuak dira eta, luzaro eta ozen eskatu ondoren, euskara ikasten ari dira astean pare bat orduz, lanorduetatik kanpo, Antzuolako Elay enpresan.

Dagoeneko sei hilabete daramatzate euskara ikasten eta poza daude esperientziarekin. Balentziaga anaiak familia euskaldunean jaio ziren eta erabat gorra dira. Juan Ignacio Lopez, berriz, familia erdalduneko semea da eta ez da erabat gorra. Denek gaztelaniaz egin zituzten ikasketak.

Eskola hauen helburu nagusia langileek egunero bete beharreko agiriak euskaraz betetzen eta irakurri beharrekoak irakurtzen irakastea da. Horrekin batera, agurrak, zenbakiak, asteko egunak eta oinarrizko beste gai batzuk irakasten zaizkie.

Agurtzane Loidi irakasle bergararrantzat ere hauek ez dira ohiko ikasleak. Irakas prozesuan, nagusi dira azalpen idatziak; arbela,



Joxe Balentziaga, Jon anaia eta Juan Ignacio López euskara ikasten.

beraz, asko erabiltzen da. Azalpen guztiak gaztelaniaz egiten dizkie, hori da eta ikasleek menderatzen duten hizkuntza; denbora guztian ikasleei begira eta astiro ahoskatuz hitz egiten du, ezpainak ondo irakur ditzaten. Askok erabiltzen ditu keinuak azalpenak emateko eta ariketak egiteko orduan.

Antzuolako Elay enpresak 1992an ekin zion euskara areagotzeko

plangintzari Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiarekin eta HABErekin elkarlanean eta Elhuyar elkartearen lankidetzarekin.

Hiru urteren ondoren, planak aurrera darrai, oraingo honetan lau ikasle gehiagorekin. Oztopo gehien izanda, euskara ikasteko borondaterik handiena erakutsi duten lau langile kementsu hauekin, hain zuzen ere.

Gazteentzako Sketch Lehiaketa.

Euskadiko Kutxak antolatzen duen Gazteentzako Sketch Lehiaketak 80 bideo jaso ditu aurten, III. edizioan. 12 eta 16 urte arteko ikasleentzat antolatzen den lehiaketa honek zazpi sari banatu ohi ditu, nagusia milioi bat pezetakoa. Aurtengo sari banaketa maiatzaren 7an izango da, Iruñeko Gayarre antzokian.

Eibarko Hiri-Toponimia.

Eibarko Udalaren Ego Ibarra batzordeak eginga, *Eibarko Hiri-Toponimia* liburua argitaratu du Euskaltzaindiak "Onomasticon Vasconiae" bilduman. Eibarko hiri barruko 1.500 leku izen jasotzen dira, . batez ere toponimo txikiak: kale, dorretxe, zubi, etxe, erreka, hiri barruko baserriak... helburua horien guztien zabalkundea egitea da eta. Bi mapa osagarri ditu.

Hizkuntzen Jaia.

Maiatzaren 4tik 6ra bitartean *La Fête des Langues* egingo da Bruselan. Hizkuntzen Animaziorako Zentroak antolatua, Europan gutxien zabaldua dauden hizkuntzei eskainiko zaie erakusketa. Helburuak dira jendea Europako komunitate eta hizkuntzen aberastasunaz jabetzea, hizkuntzak era dinamikoaz ezagutaraztea, material pedagogikoa esperimentatzea eta esperientziak trukatzeko.

Saiakera saria katalanari, galegoari eta euskarari buruz.

UNEDeko Joan Maragall programak eratua, lanak edozein hizkuntzatan idatz daitezke eta argitaratu gabeak izan behar dute. Aipaturiko hizkuntzak edo literaturak izango dituzte aztergai. Lanak uztailaren 30a baino lehen bidali behar dira UNEDera. 200.000ptako hiru sari emango dira, espezialitateko bana. Tel.: (91) 398 68 86

Goiherriko Euskal Eskola, urte asko euskararen alde

Euskarak azken urteetan bizi izan duen indartzean zerikusi, handia izan dute Euskal Herrian barrena sortu diren elkarteek. Horieta bat, Goiherriko Euskal Eskola kultur elkarte bat izan da. 1977an sortua Lazkaon, euskara zabaltzea eta haren erabilera bultzatzea izan dira Goierriin batik-batik eragina duen elkarte honen helburu nagusienak.

Hasierako lanik handienak euskaltegi-barnetegi moduan egin zituen. 1988an, Maizpide euskaltegia sortu zenean, HABEren babespean eta zuen euskararen irakaskuntzaren ardura.

Hortik aurrera, euskaraz egindako kultur ekintzei eta ikerketei heldu nahi izan zien, inguruko euskaldunak euskara erabiltzera bultzatzeko. Lana oinarri sendoetan sostengatzeko asmoz, bi erabaki hartu zituen elkarteak: dinamizatzaile bat hartzea eta, ezertan hasi aurretik, azterketa soziolinguistikoa egitea. 90-91 ikasturtean, Lazkaoko OHOk umeen euskararen

erabilera neurtu zuten. Emaitzak aztertu eta ondorioak atera ondoren, plangintza orokorra egin zuten. Era askotako ekintzak antolatzen dituzte:

- *Gerriko Ikerlan Sariketa.*

Dagoeneko bost edizio izan ditu Goierri buruzko ikerlanak bultzatzen dituen sariketa honek. Orain arte saritutako lanak argitaratuta daude. Seigarren edizioko sariduna maiatzaren azken ostiralean ezagutaraziko da.

- *Tertuli giroan.* Otsaila eta apirila bitartean lau hitzaldi-tertulia antolatu dituzte.

- *Kulturaldia.* Maizpide euskaltegiarekin batera ihardunetz, apirilean bertsopaper sariketa, bertso saioak, diapositiba emanaldiak, hitzaldiak eta erakusketak egiten dira.

- *Dantza ikastaroak.* Aurten Baztango Mutildantza ikastaroa antolatu dute Ikerfolk taldearen laguntzarekin.

Lan eskergea, euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatzea helburu duen elkarte honena.

Igone Arteagoitia, 30, filologo bilbotarrak euskarazko eskolak antolatu ditu datorren ikasturterako Washingtongo Georgetown Unibertsitatean. Filologia Ingelesa EHUn ikasi eta gero, hiru urteko masterra egin zuen West Virginiako Unibertsitatean. Gaur egun Linguistikako doktoradutza ari da prestatzen Estatu Batuetako hiriburuan.

Koldo Amezttoi, 43, Arrutako (NB) ipuin kontalariak Apanize ikuskizuna prestatu du Pascal Gaigne musikariaren eta Edi Naudo antzerki zuzendariaren laguntzarekin. Miarritzen eta Donostian antzestu eta gero, Euskal Herrian barrena ibiliko du. Koldo Amezttoi ikuskizun asko prestatu ditu haurrentzat eta helduentzat; besteak beste, bi disko eta bi liburu argitaratu ditu eta, laster, beste hi plazaratuko ditu. Horieta batean *Apanizeren* testuak jasoko ditu. *Apanizek* izen bereko artzain baten istorioa kontatzen du, ipuinak, musika, kondairak eta dantzak tartekatuz.

Argitalpenak

Xirrixta

Xirrixta aldizkariak 4 eta 8 urte arteko edozein haur euskalduni irakurtzeko zaletasuna, adimena zorrozteko parada eta dibertitzeko aukera ezin hobea eskaintzen die. Txukun, kolore biziak eta euskara errazean idatzia da. Urteko harpidetzak 5.000 pta balio du: opari polita.

Berri gehiago: XirrixtaZaleak, 512 P.K. 64705 Hendaia Cedex. Tel.: (07/33) 59 48 13 73.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako
Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)**

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

Galdezka

Irakaskuntza elebiduna

G. Zein dira irakaskuntza elebidunaren abantailak?

E. Ikerketa asko egin dira Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo galdera horri erantzuteko asmoz. Labur bilduta, hauek dira ondorioak:

- Ikasleak euskara ikasten du, gaztelania inolaz ere ahaztu gabe.


- Ikasle elebidunen arrazonomendu abstraktoa eta adimen garapena handiagoak dira.

- Ikasketa edukiak berdin-berdin lortzen dira.

- Ikasle elebidunek elebarkarrek baino errazago ikasten dituzte hizkuntza modernoak (ingelesa, alemana, frantsesa, etab.).

- Ikasle elebidunak gizarte elebidunean integratuagoak daude.

Irakaskuntza elebiduna, hortaz, onuragarria da ikasleentzat: gehiago dakite, trebatuagoak daude eta gizarteari integratuagoak bizi daitezke.



Jose M. Zeberio
Hizkuntza Politikarako
idazkari nagusia

Kooperatiben estatutuak euskaraz

Euskal Autonomi Elkarteko kooperatibak beren estatutuak 4/93 Kooperatiba Legearen arabera egokitzen ari direla eta, Eskoriatzako Irakasle Eskolak -bera ere irakaskuntza kooperatiba- hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie kooperatiben estatutuak euskaratu nahi dituztenei.

- Alde batetik, Euskadiko irakaskuntza kooperatibetan erabiltzen diren hiru estatutu eredu euskaratu ditu: gurasoen kooperatiben, irakasle kooperatiben eta integralen ereduak hain zuzen. Industri kooperatibei dagokienez, *Mondragón Corporación Cooperativa* taldean erabiltzen diren bi estatutu ereduak euskaratu ditu, lan kooperatibek eta agrupazioek erabiltzeko.

- Bestetik, Eskoriatzako

Irakasle Eskolak laguntza eskaintzen die estatutu berriak euskaraz (ere) erregistratu nahi dituztenei: itzulpenak egin, euskarazko testuak orraztu eta zuzendu.

Zerbitzu honen bidez, Eskoriatzako Irakasle Eskolak euskara erabiltzea bultzatu nahi du, eta, jakina, bide batez, estatutuen eredu ulergarriak eta bateratuak eskaini.

Euskal Autonomi Elkartean 400etik gora kooperatiba dira Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseiluan, sei federazioetan banaturik: nekazaritza, kontsumoa, kreditua, irakaskuntza, lan elkarteak eta garraioa. Eskoriatzako Irakasle Eskolak federazio guztiei eskaini nahi die laguntza. Tel.: (943) 71 41 57. Ardura-duna: Julen Arexola-Leiba.

✓ Kontutan hartzeko

- **"Euskararen Jarraipena" liburua.** M. Karmen Garmendiak HPINek argitaratu duen *Euskararen Jarraipena* liburua aurkeztuko du maiatzaren 5ean, Donostian. Argitalpen honek 1991n egindako inkesta soziolinguistikoaren emaitzak jasotzen ditu eta, lehen aldiz, euskararen eremu osoa hartzen du: Euskal Autonomi Elkartea, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparraldea. Liburuan jasotzen diren datuak hiru ataletan banatzen dira: hizkuntzaren

gaitasuna, euskararen erabilera eta euskararekiko interesa eta jarrera. Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez argitaratu du.

- **Herri Urrats.** *Seaska* federazioaren eskutik *Herri Urrats* jaiaren XI. edizioa maiatzaren 14an, igandez, izango da Senpereko lakuaren inguruan. Beti bezala, bilduko den dirua Iparraldeko ikastolentzat izango da. Euskara eta festa giroa izango dira nagusi.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

